



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilbao Ekintza, E.P.E.L.

2024ko Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako zonaldean hutsik dauden lonjak aktibatzeke dirulaguntza deialdia.

Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseilua, 2024. Urteko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, 2024ko hutsik dauden lonjak aktibatzeke dirulaguntza deialdia.

Bilbon, 2024ko martxoaren 21ean. —Zuzendari Nagusia, F. Javier Garcinuño Zabala



HUTSIK DAUDEN LONJAK AKTIBATZEKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA 2024

1. Zioen azalpena

Bilbao Ekintza E.P.E.L. Bilboko Udalaren erakundea da, eta hiriaren garapen ekonomikoa sustatu eta babesten du, hiritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko asmoz:

- Enpresak sortzea eta haztea errazten du, merkatu berrietarako sarbidea bultzatuz, batez ere hiriak zehaztutako espezializazio adimenduneko eremuetan: zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak, ekonomia digitala eta turismoa.
- Merkataritza-jardueraren garapena sustatzen du, kanpoko proiektu eta ekimenen bultzatzaile izateari uko egin gabe, atzerriko inbertsioari Bilboko ateak irekiz.
- Gazteen garapen profesionala bultzatzen du, haien talentua eta sormena balioetsiz.
- Ekitaldiak eta turistak erakartzen ditu hirira, euskarri eta arretako zerbitzu onenak eskainiz, hiria posizionatzen eta aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeko.

Helburu hau antolatzeko, Merkataritza Arlo bat dauka, saltoki txikien lehiakortasuna hobetzeko lan egiten duena. Horretarako, prestakuntza eta aholkularitzako zerbitzuak eta lehiakortasuna hobetzeko ekintzak eta programak eskaintzen ditu. Gainera, 2025eko Bilboko Merkataritzako Plan Estrategikoan jasota dagoen bezala, lonja hutsen aktibazio komertziala bultzatzea planteatzen da, erabiltzen ez diren lokalen optimizazioa eta merkataritza-ekintzaitza integratuz.

Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza E.P.E.L.en bitartez, programa honen lehenengo deialdia jarri zuen martxan 2022an, Alde Zaharreko merkataritza suspertzeko eta lonja itxiak mobilizatzeko, horretarako laguntza batzuk emanez. Deialdiak arrakasta handia izan zuen; horregatik, Bilbo Zaharrera, San Frantziskora eta Zabalara ere zabaltzea erabaki da.

COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiak eta kontsumitzaileen portaera-aldaketek –bereziki, plataforma teknologikoen bidezko erosketen igoerak– eragindako egungo egoerak agerian uzten du gertaera horiek eragin negatiboa izan dutela hurbileko merkataritza-jardueretan.

Merkataritarik gabeko hiri bat lurralde hotz, pobre eta ez-seguru bihurtzen da; erabilerak nahasten dituen, zerbitzuak eskaintzen dituen, bizi-kalitatea ematen duen eta aberastasuna eta segurtasuna sortzen dituen hiri-espazioaren funtzioa galtzen du; eta periferian instalatutako merkataritza-guneetan oinarritutako eredu baterantz jotzen du, automobilaren nagusitasuna bultzatuz.

Surbisa udal-sozietateak emandako azken datuen arabera, Bilboko Alde Zaharrean 1.156 merkataritza-lokal daude; horietatik 956 irekita eta 200 itxita (lonjen %17).

Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako zonaldean, 960 lokal daude, horietatik 481 zabalik eta 479 itxita (lonjen %50).

Zazpi Kaleen nukleoari erreparatzen badiogu (Belostikale, Goienkale, Dendarikale, Artekale, Barrenkale, Barrenkale Barrena eta Arategizar), guztira 376 lokal daude; horietatik %21 itxita daude gaur egun (78 lonja jarduerarik gabe).

Ranking bat ezarriz, eta ehunekotan, Belostikale, Goienkale, Dendarikale eta Artekale lirateke egoera okerreanean daudenak, lau kale horietako lonjen %20 edo gehiago itxita daude (%25, %24, %20 eta %25, hurrenez hurren).

Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako zonan antzeman dugu badela merkataritza-eremu bat non lonjak etengabe itxi diren; hortaz, eremu hori suspertu beharra dago, zona horri merkataritza-bizitza emateko. Hauexek dira aukeratutako kaleak: Bailen, Maiatzaren Bia, Castillo Jenerala, Hernani eta Lamana. Kale horietan 174 merkataritza-lokal daude, eta %49 itxita daude. Elkarren hurbil dauden kaleak izanik, uste dugu itxitako lokalak aktibatzeak egoera lehengoratu eta negozio berrien ezarpenari mesede egin dakiokela.



Argudio horietan oinarritu gara dirulaguntzak ematerako orduan Bilboko bi zona horietan (Zazpi Kaleak eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala) kokatuta dauden zerbitzu- eta merkataritza-jarduerak lehenesteko.

Jarduera horren esparruan, eta jarduera bat bera ere baztertu gabe, beheko solairuan dauden lokalak aktibatzekeo estrategia osagarri gisa ezarri da honako hau: artisautza-sektoreak egindako merkataritza-jarduerak, diseinua eta berezko nortasuna duten beste ekimen batzuk bultzatzea, nolabait inguruko jatorrizko jarduera berreskuratu ahal izateko.

Horrela, kale eta jarduera horiek lehenetsiz, helburu gehigarri bat lortu genuen: interes bereziko zona-marka batzuk sortzea, bai biztanle egoiliarrentzat, bai hiriko bisitariarentzat, haien erakargarritasuna handituz eta mix bat osatuz gainerako merkataritza- eta ostalaritza-jarduerekin. Horrelako saltoki eta zerbitzuen kontzentrazioak pertsona-trafiko handiagoa sortzen du, merkataritza-jarduera atzeraelikatuz eta bezeroarentzako erosotasuna handituz, guztia hiriaren eta hirigintzaren mesedetan.

Horretarako, laguntza horien oinarrietan ezartzen denez, aipatutako jarduerekin zerikusia duten jarduera ekonomikoek (produktuekin nahiz zerbitzuekin lotutakoek), bai eta inguruetako merkataritza-mixa garatzeko interesgarriak izan daitezkeen beste jarduera batzuek ere, puntu gehigarriak izan behar dituzte ekimenaren balorazioan.

Helburu horrekin, enpresa-ekimenak abian jartzea errazteko laguntza ekonomikoak eskaintzen dira, eta, beraz, merkataritza-lokalen alokairutik nahiz errentatzaileek alokairua kobratzea bermatuko duten abalen sinaduratik eratorritako gastuak ordaintzen lagundu nahi da. Kale bakoitzaren egoera kontuan hartuta, eta azaldutako baldintzetan, Alde Zaharreko Belostikale, Goienkale, Dendarikale eta Artekale kaleetan dauden lokalak bi laguntzak (alokairuak eta abalak) jaso ahal izango dituzte, eta, aldiz, beste hiru kaleetan daudenek abalak soilik.

Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako auzoetan, hauexek dira bi dirulaguntzak jaso ahalko dituzten kaleak: Bailen, Maiatzaren Bia, Castillo Jenerala, Hernani eta Lamana.

Era berean, Bilbao Ekintza hiriko saltokien mapa bat egiten ari da, merkataritza-ardatzak ezarriko dituena, hartara, eremu horietan lan egiteko eta hutsik dauden lokalen jarduera sustatuko duten programak ezartzeko. Azterlanak aurrera egin ahala, programa hori hiriko beste zonalde batzuetara zabaltzeko aukera egon daiteke.

Azaldutakoaren arabera, Bilbao Ekintza E.P.E.L.eko Administrazio Kontseiluak 2024ko martxoaren 21eko bilkuran onartu du lonja hutsak aktibatzekeo zuzeneko laguntza ekonomikoak eskuratzeko deialdia.

2. Esparrua eta xedea

Bilbo Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek, laguntza-programa honen bidez, Bilboko Zazpi Kaleetan hutsik dauden lonjak aktibatzea ahalbidetu eta sustatu nahi du, batez ere Bilboko Alde Zaharreko Belostikale, Goienkale, Dendarikale eta Artekalen, bai eta Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako Bailen, Maiatzaren Bia, Castillo Jenerala, Hernani eta Lamana kaleetan, enpresa-ekimenak abian jarriz eta laguntza ekonomikoak emanez, deialdi honetan aurreikusitako baldintzetan, bai merkataritza-lokalak alokatzeko, bai alokairu horien abalak sinatzearen ondoriozko gastuetarako, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Lokalak sarbide zuzena izan beharko du bide publikotik. Ez da solairuarterean kokatuko, ezta sotoan ere. Horrez gain, sarrera nagusia edo aurrealde komertziala hurrengo paragrafoan jasotako betekizunetan aipatutako kaleren batean izan beharko du.

Dena den, Bilbao Ekintza hiriko merkataritza-ardatzei buruz garatzen ari den analisia programa hori hiriko beste leku batzuetan aplikatzea komeni dela hautematen duen heinean, oinarri hauetan identifikatutako kaleak areagotu ahal izango dira, baita esku hartzea erabakitzen den hiriko eremuak ere, egokituz jotzen bada, eta handitze horretarako barne-txosten justifikatzailea oinarri hartuta.

Zabalkuntza hori ezartzeko, kontuan hartu beharko da deialdi honen hamalagarren atalean aurreikusitakoa.

**3. Onuradunen betekizunak**

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izango dira nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak, pertsona fisikoak eta ondasun-erkidegoak eta legez eraturako pertsona juridikoak, honako kasu hauetan sartuta badaude:

- a) Honakoen titular izatea:
 1. Jarduera ekonomiko berria, edo
 2. Establezimendu berri baten irekiera, betiere Bilbon lehendik dagoen establezimendu bat lekualdatzen ez bada. Udalerrian dagoeneko beste negozio bat duten eta establezimendu berri bat irekitzen duten enpresek jarduera egiten duten lokala irekita eduki beharko dute gutxienez establezimendu berriaren dirulaguntza jasotzeko epean, edo
 3. Beste lokal-mota batzuetan garatzen ari den jarduera ekonomikoa.
 4. Oinarri hauekin bateragarria den programa publiko osagarri batetik datorren jarduera ekonomikoa, atal honetako 2. puntuan ezarritakoa betetzen duena.
- b) Honako baldintza hauek bete beharko dira:
 1. Enpresak sortzeko oinarriko prestakuntza egin izana eta negozio-plana egiteko beharrezko aholkularitza jaso izana Bilbao Ekintza E.P.E.L.en Enpresa eta Enplegua Sustatzeko Arloaren bidez, bai eta Bilbao Ekintza E.P.E.L.eko teknikarien oniritzia jaso izana ere.
 2. Lokala bigarren oinarrian zehaztutako espazio-eremuan kokatuta egotea. Zehazki, Zazpi Kaleen kasuan, Belostikale, Goienkale, Dendarikale edo Artekaleen kokatuta egonez gero, bai alokairurako bai abaletarako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte, eta beste hiru kaleetan egonez gero, abalen laguntza soilik eskuratu ahal izango dute. Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako Bailen, Maiatzaren Bia, Castillo Jenerala, Hernani eta Lamana kaleetan dauden lokalek alokairurako zein abaletarako laguntzak jasotzeko aukera izango dute.
 3. Jarduera ekonomikoa egingo den lokalaren gaineko errentamendu-kontratuaren titularra izatea, eta errentamendu-kontratu hori 2024ko urtarrilaren 1a baino geroago sinatzea.
 4. EJJn alta ematea lokal horretan, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.
 5. Enpresa txiki bat izatea:
 - a) Aktiboak edo eragiketa-bolumenak 10 milioi euro baino gehiago ez izatea.
 - b) Plantillaren batez bestekoa 50 enplegatu baino gehiago ez iritea.
 - c) Balanatze orokorra 10 milioi euro baino gehiago ez izatea.
 6. Arestian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka %25eko edo gehiagoko partaidetzarik ez izatea.
 7. Onuraduna ezin izango da lokalaren jabea izan. Era berean, lokala ezin izango da pertsona juridiko eskatzaileen ezein bazkideren jabetzakoa izan.
 8. Onuradunak ez du bigarren mailarainoko ahaidetasun-harremanik izango lokalaren jabetzarekin (ezkontidea barne).
 9. Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Bilboko Udalak automatikoki egiaztatuko du Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla. Horretarako, datuak bitartekaritzako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsultatuko ditu, dirulaguntza emateko eta ordaintzeko ebazpena ezarri aurretik. Dena den, eskatzailea beren-beregi agertu ahal izango da egiaztapen hori egitearen aurka, eta, horretarako, bere kabuz aurkeztu beharko ditu baldintza hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.
 10. Dirulaguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izatea.



Ofizios berrikusiko da ez duela zerga-zorrik, ezta Bilboko Udalarekin hartutako dirulaguntzak itzultzeagatik ere.

11. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dion zigor- edo administrazio-arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta ez egotea, sexuagatiko bereizkeria gauzatzegatik gertatu direnak barne.
12. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. atalean ezarritako gainerako egoeraren batean sartuta ez egotea, dirulaguntzen onuradun izaera lortze aldera.
13. Berariaz salbuetsita geratzen dira elkarteak, klubak, fundazioak, eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, langile autonomo laguntzaileak, bai eta ondare-sozietateak eta sektore publikoko erakundeak ere.

4. Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak

Laguntza ekonomikoak honako hauek diruz laguntzeko dira:

- a) Merkataritza-lokalen alokairu-gastuak.
- b) Finantza-erakundeekin abalak sinatzeak dakartzan gastuak, abal horiek ordainduko direla bermatzeko.

5. Laguntzen zenbatekoak eta onurak

Laguntza-plan honen barruan honako onura hauek aitortu ahalko dira:

1. Zerbitzuak

Laguntza eskatu ondoren, jarduera ekonomikoen sustatzaileek, gainera, prestakuntza eta aholkularitza jaso ahal izango dute Bilbao Ekintza E.P.E.L.en eskutik, enpresa-kudeaketa hobetzen laguntzeko. Halaber, kasu bakoitzean egokienak diren finantza-keta-iturriak identifikatzen eta bilatzen laguntzeko zerbitzu bat ere jasoko dute.

2. Laguntza ekonomikoak

Emandako laguntzak, itzuli beharrik gabekoak, zer kaletan dagoen kontuan hartuta emango du dirulaguntza:

- a) Alokairuaren kostuaren %50, ordaindu eta lehenengo hamabi hilabeteetan, lokal bakoitzeko 400 euroko hileko muga ezarrita. Lokalaren alokairua ordaintzeko ga-bealdia izanez gero, ordainketa enpresak jabeari lehen hilekoa ordaintzen dion unean hasiko da. Ezin izango dira diruz lagundu zergak, tasak, BEZa, lokalen fidantza eta higiezinaren kudeaketako gastuak.
- b) Oinarri hauetan aipatzen diren jarduerak egiteko erabiltzen diren merkataritza-lokalak alokatzeko abalak sinatzearen ondoriozko gastuak, 400 euroko gehieneko muga ezarrita merkataritza-lokal bakoitzeko.

Laguntza eman ondoren, onuradunarekin zerikusirik ez duten eta jardueraren hasiera zailtzen duten inguruabarrak gertatzen badira, Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek laguntzaren baldintzak aldatzea erabaki ahal izango du, egoera berrira egokitzeko.

6. Laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura

6.1. Eskaerak aurkeztea

Dirulaguntza hauen deialdia lehia sinpleko erregimenean egingo da eta, beraz, eskaerak sartzen diren hurrenkeran ebatziko dira. Prozedura interesdunek aurrez eskatuta hasiko da. Horretarako, eskaera aurkeztu ahal izango dute oinarri hauen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta indarrean dagoen aldi osoan zehar, aurrekontu-esleipena agortzen den arte.

Dirulaguntza-eskaerak telematikoki izapidetu beharko dira, helbide elektroniko honen bidez: comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus. Bitarteko horiek erabiltzeko aukerarik egon ezean, eskatzailea Bilbao Ekintza E.P.E.L.ekin harremanetan jarri beharko da, izapidetzeko beste modu bat adosteko.



Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

6.5 atalean aurreikusitakoarekin bat etorriz, eskaerak aurkeztutzat joko dira eskatutako dokumentazio guztia aurkezten denean eta dokumentazio horren alderdirik zuzendu behar ez denean.

Dirulaguntza lerro honen onuradun diren bi eremuen arteko oreka jasotze aldera, hasierako aurrekontu-muga %60koa (75.000,00 euro) izango da Alde Zaharrerako, eta %40koa (50.000,00 euro) Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalarako. Beraz, bi eremuetako edozeinetan zenbateko horiek lortu ondoren, eremu horretarako aurkeztutako gainerako dirulaguntza-eskaerak eta aurkezten diren berriak eten egingo dira gehienez ere sei hilabeteko epean, eta, nolana ere, deialdi horren indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago amaituko da. Epe hori igarotakoan, eta beste zonan ezarritako hasierako muga ez betetzeagatik aurrekontua badago, etendako eskabideak baloratuko dira, aurkezpen-hurrenkerari eta 6.3 atalean jasotako prozedurari jarraituz.

6.2. *Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa*

Oro har, oinarri hauetan agertzen diren laguntzak jaso eta deskribatutako onurak eskuratu ahal izateko, sustatzaileek eta enpresek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskaera: okupatutako lokal bakoitzeko eskaera bat egon beharko da; nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, bazkide guztiek sinatu beharko dute. Pertsona juridikoen kasuan, haren ordezkaritza esleituta duenak aurkeztuko du eskaera. (I. eranskina - Eskaera).
- b) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituena:
 - i. Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza horien oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, eta egiaztatzen duela egiazkoak direla nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, pertsona juridikoen eta/edo haien ordezkariak eskaera-formularioetan emandako datuak.
 - ii. Enpresa txiki gisa kalifikatzeko beharrezko baldintzak betetzen ditu (gehienez 50 langile).
 - iii. Establezimendua irekitzeak ez duela esan nahi udalerriko beste zona batzuetan lehendik zegoen jarduera bat lekuz aldatu denik, edo, hala badagokio, jarduera hori beste lokal-mota batean egiten zenik.
 - iv. Ez duela ahaidetasun-harremanik lokalaren jabetzarekin, ezkontidearekin eta/edo aurreko edo ondorengo ahaideekin.
 - v. Onuraduna ez dela lokalaren jabea. Era berean, lokala ez dela pertsona juridiko eskatzaileen (sozietatea) ezin bazkideren jabetzakoa.
 - vi. Hainbat enpresak lokala partekatzen dutenean: Eskaeraren errentamendu-kontratuaren datuak (titularren izena, azalerako erabilera m²-tan, dago-kion kuota BEZik gabe eta bakoitzaren sinadura). Aldeko ebazpena ematen bada, onuradun bakoitzari ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, horietako bakoitzean erabiltzen diren metro koadroen zati proportzionala kalkulatu da.
 - vii. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dion zigor- edo administrazio-arloko zehapenik ez duela eta horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta ez dagoela, sexuagatiko bereizkeria gauzatzegatik gertatu direnak barne.
 - viii. Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak, Egoitza Fiskalekoak eta Dirulaguntzak itzultzekoak egunean dituela, eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen duela, Udalak datuak eskuratzearan aurka egiten badu.
 - ix. Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean dirulaguntzen onuradun izateko aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean.
 - x. Udalak datuak egiaztatzeari baimena ematen diola.



- xi. Ez dela izan diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen onuradun, deialdi honen 6.6 atalean jasotako baldintzetan.
- c) Bilbao Ekintzak proposatutako Negozio Plana edo antzeko ereduak. Eskatzaileak negozio-plana beste erakunde batean egin badu, Bilbao Ekintzako Enpresa eta Enplegua Sustatzeko Arloak ere onartu beharko du.
- d) Beste agiri batzuk:
 - i. Lokalaren alokairu-kontratuaren kopia, lokalaren metro koadroen guztizkoa jasoko duena. Edo, bestela, lokalaren metro koadroak jasotzen dituen dokumentu baliagarria.
 - ii. Jarduera Ekonomikoen Zergan egindako alden eta bajen gaineko egiaztagiri eguneratua.
 - iii. Bizkaiko Foru Aldundiaren 200 ereduaren 2. orrialdea (Sozietateen gaineko Zerga) edo enpresa txiki bat dela adierazten duen agiri baliokidea.

Eskatutako dokumentazio guztia oinarri hauetan ezarritako epeetan aurkezten ez bada, edo eskatzaileak 3. kapituluko b) 7 atalean (betekizunak) agertzen diren erakundeekiko zorrak baditu, Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek akatsak zuzentzeko eskatuko dio, eta gehienez ere 10 eguneko epea emango dio. Egoera hori erregularizatzen ez bada, eskaera artxibatu ahal izango da, eta eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Espedientea beste izapiderik gabe artxibatuko da, eta Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek ez du eskaera horri buruzko berriazko ebazpenik eman beharrik izango.

Era berean, Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du eskatzaileak laguntza-programa honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

6.3. *Eskaerak baloratzea*

Laguntza-eskaera baliozkoa izan dadin, proiektuak gutxienez 75 puntu lortu beharko ditu 100 puntutik, honako balorazio-irizpide hauen arabera:

- a) Negoziazio Plana (gehienez 40 puntu). Enpresa-proiektuaren heldutasun- eta analisi-maila baloratuko dira.
 - i. Negozioaren deskribapena: 20 puntu.
 - ii. Marketin-plana: 10 puntu.
 - iii. Inbertsio- eta finantzaketa-analisia: 10 puntu.
- b) Negozioaren izaera berritzailea (gehienez 15 puntu).
 - i. Berrikuntza-maila negozio-ereduan: 5 puntu.
 - ii. Teknologia berrien erabilera-maila kudeaketan: 5 puntu.
 - iii. Teknologia berrien erabilera-maila sustapenerako eta komertzializaziorako: 5 puntu.
- c) Laguntza-eskaeraren xede den lokalaren kalea dagoen jarduketa- eta garapen-eremuko mix komertziala hobetzen laguntzea (15 puntu).
 - i. Inguruan ez dauden jarduerak, aseta ez dauden eskaerei erantzuten dietenak: 5 puntu.
 - ii. Inguruan daudenen jarduera osagarriak: 5 puntu.
 - iii. Inguruko gainerako jarduerekin alderatuta, jardueran elementu bereizgarriak sartzen dituzten jarduerak: 5 puntu.
- d) Zioen azalpenean aipatutako jarduerekin lotutako jarduera (gehienez 15 puntu).
 - i. Sustatu beharreko jardueren artean badago: 15 puntu.
 - ii. Sustatu beharreko jardueren artean ez badago: 0 puntu.
- e) Jardueren kasua (gehienez 15 puntu).
 - i. Sortu berria bada: 15 puntu.



- ii. Lekualdaketa bada: 10 puntu.
- iii. Udalerrian dagoen bat lekuz aldatzea ez dakarren beste bat irekitzen bada: 5 puntu.

6.4. *Deialdia izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna. Prozedura*

Deialdi honetan instrukzio-organoa bat dago, eta Bilbao Ekintza E.P.E.L.en Merkatari-tza Arloari atxikitako teknikariek osatzen dute. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen duenean, ofizioz egingo dituzte datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko egokitzat jotzen dituzten jarduketa guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena.

Era berean, organo horrek eskumena izango du, egoki jotzen duenean, eskaerak ondo ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen duen dokumentazio edo informazio osagarri guztia eskatzeko.

Dirulaguntzen eskaerei dagokienez, aurkezpen-egunaren eta -orduaren arabera izapidetuko dira, betiere, zuzentzeko eskatu behar ez den kasuetan. Zuzenketaren bat egin behar bada, eskaera modu egokian osatzeko dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira kontuan eta, edonola ere, deialdirako eskuragarri dagoen kreditu-muga, ezarritako kredituaren arabera.

Onuradun izateko eskatzen diren baldintzen arabera emango dira laguntzak, besterik ez. Ez da beharrezkoa izango eskaerak bata bestearekin alderatzea edo lehentasunak ezartzea.

3. artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, ez dira laguntza gehiago emango eta ez dira ebazteke dauden eskabideak onartuko.

Eskaerak ebaluatu ondoren, txosten bat egingo da. Bertan, ebazteko eskumena duen organoaren dirulaguntza emateko proposamena zehaztuko da, eta dirulaguntzen onuradunak eta proposatutako zenbatekoak jasoko dira, bai eta eskaerak ez onartzeko arrazoiak ere.

Bilbao Ekintza E.P.E.L.eko Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa, eta, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango du ebazpen bat emateko, eskaerak aurkezteko epea guztiz amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Gainera, aurkeztutako dirulaguntzen eskaera guzti-guztien inguruko ebazpen arrazoi-tu egokia eman beharko du.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori guztia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean emandako dirulaguntzen argitalpena gorabehera.

Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, erakunde interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazioaren isiltasunaren bitartez atzera bota dela ulertu behar izango dute.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen-erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, era berean zenbatuta.

6.5. *Ordaintzeko prozedura eta justifikazioa*

Alokairurako laguntzen kasuan, dirulaguntzaren xedea behar bezala justifikatu dela egiaztatu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpenean onartutako zenbateko osoaren %50 ordainduko da, onuradunak emandako banku-kontura transferituta. Ireki eta 12 hilabeteko epea igaro ondoren, edo gabealdi bat izan ondoren, lehen ordainketa egin zene-tik 12 hilabeteko epea igarotakoan, eta jarduerak funtzionatzen jarraitzen duela egiaztatu ondoren, dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa ordainduko da. Hori guztia, urtea amaitu eta bi hilabeteko epean eskatu eta justifikatu ondoren.

Abalaren kostuari aurre egiteko laguntzaren ordainketa behin bakarrik egingo da, eskaeraren aldeko ebazpena eman ondoren.



Honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

— Erakundearen eratze-eskrituren kopia (hala badagokio) eta IFZ.

— Dagozkion fakturak eta ordainagiriak.

Fakturen ordainketa bankuko agiri bidez egiaztatu beharko da: transferentziaren egiaztageria, edo helbideratzearena, edo antzeko beste bat.

— Bankuko datuen fitxa, ereduaren arabera.

Fakturak eta ordainagiriak ezingo dira izan laguntzak eskatu baino lehenagokoak. Faktura horiek ezin izango dira aurkeztu beste erakunde batzuetan dirulaguntzak justifikatzeko, egotzi gabeko ehunekoan izan ezik.

Salbuespen gisa eta ondo justifikatuz gero, justifikatzeko epea luzatu ahal izango da Bilbao Ekintza E.P.E.L. erakundeko teknikariek egoki eta behar den bezala argudiatuta dagoela uste badute.

6.6. *Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna*

Beste edozein administratziotatik edo estatuko zein nazioarteko erakunde publiko edo pribatutatik beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartzen da, baldin eta horien zenbatekoak, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, dirulaguntzari egotzitako gastuaren kostua gainditzen ez badu.

7. **Betebeharrak, ez-betetzeak eta laguntzak itzultzea**

7.1. *Onuradunen betebeharrak*

- Bilboko Udalak egin beharreko egiaztatze- eta ikuskatze-jarduerak onartzea, eta horretarako eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- Betekizunak eta baldintzak betetzen jarraitzea, baita jarduera egiten eta dirulaguntza ematea edo izatea dakarren helburua betetzen jarraitzea ere.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideak eskuratu izana jakinaraztea, horren berri izan eta behala.
- Oinarri hauetan jasotako betekizunak betetzen direla egiaztatzea.
- Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, onuradunari dirulaguntza eman zaiola jakinarazi eta bost (5) eguneko epean beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badu, dirulaguntza onartu duela joko da.
- Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan, bereziki, dirulaguntza lortzeko eskatutako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea eragotziko luketen datuak ezkutatzuz lortutako dirulaguntzen kasuan, edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketei aurre egitean, aitzakiak jartzean, eragozpenak jartzean edo uko egitean.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan xedatutako gainerako betebeharrak betetzea.

7.2. *Baldintzak ez betetzea eta laguntzen itzulketa*

Laguntza emateko arrazoietakoren bat desagertzen bada edo hartzaileek dagozkien betebeharretakoren bat betetzen ez badute, laguntza-programatik kanpo geratuko dira eta ordaintzeko falta diren zenbatekoak jasotzeko eskubidea galduko dute. Halaber, Bilbao Ekintza E.P.E.L. erakundeak, bere aldetik, ordura arte kobratutako zenbatekoak itzul ditzatela eskatu ahalko die.

Ez-betetzea, proiektuaren bazterketa, dirua itzultzeko betebeharra eta kobratu gabe dauden laguntzak jasotzeko eskubidearen galera Bilbao Ekintza E.P.E.L. erakundearen Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez adieraziko dira. Ebazpenaren aurretik, erakundearen zerbitzu teknikoek gaiari buruzko txostena egingo dute.



8. Onuradunen informazioaren konfidentzialtasuna

Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jarduketa-programetan jarduten duten langileak programa horietako onuradunei buruzko edozein informazioaren jakitun suertatzen badira, informazio hori programaren xedeak burutzeko baino ez dute erabiliko. Horrexegatik, hain zuzen ere, programak garatze aldera kanpoko aholkularien lana beharrezkoa denean, Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die zereginak direla medio ezagutu dezaketen informazioaren tratamenduari dagokionez.

9. Aurrekontu-esleipena

Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa ehun eta hogeita bost mila eurokoa da (125.000,00 euro), indarrean sartzen denetik 2025eko abenduaren 30era arte.

10. Dirulaguntzak ordaintzea

Orokorrean, onartutako dirulaguntzaren zenbateko osoa justifikatu baino lehen ordainduko dira dirulaguntzak (6.5 apartatuan adierazitakoaren arabera), eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eramateko beharrezko finantzaketa gisa.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, emandako banku-datuen fitxan agertzen den kontu korrontean.

Dirulaguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Halaber, dirulaguntza ez da ordainduko, pertsona edo erakunde batek aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

11. Beste dirulaguntzekin bateragarria izatea

Bilbao Ekintzak eman litzakeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandakoekin. Edonola ere, dirulaguntzen eta beste iturri batzuen bidez lortutako finantzaketak ezingo du dirulaguntzaren kostua gainditu.

12. Dirulaguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak udalaren webgunean argitaratuko dira.

Era berean, dirulaguntzen berri emango da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.

13. Programaren indarraldia

Deialdi hau haren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, edo aurrekontuko diru-izendapena agortu arte, baldin eta epe hori baino lehen egin bada.

14. Legeria aplikagarria

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2016ko uztailaren 20koa).
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarria.



- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, I. titulua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

15. Interpretazioa, garapena eta aldaketa

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdi honetako punturen batean zerbait garatu, aldatu, egokitu edo kendu behar izanez gero, funtsa aldatu gabe, Bilbao Ekintza E.P.E.L.eko Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio aldaketa horiek egiteko eskumena, baina Administrazio Kontseiluari horren berri eman beharko dio neurriak hartu ondoren egiten den hurrengo bileran.

Zehazki, eta programaren aplikazio-eremuan hiriko kale edo zonalde gehiago sartzeari dagokionez, deialdi honen bigarren atalean xedatutakoaren arabera, Bilbao Ekintza E.P.E.L.eko Zuzendaritza Nagusiak izango du zabalkunde horren baldintzak zehazteko eskumena.

Neurri hori hartzea erabakiz gero, Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio, neurria hartu osteko lehen bileran.